

EUSKAL NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BOIKOTA EGITEN DIOTE CCOO-UGT SINDIKATUEK ETA PATRONALAK

“Madrilen sinatzen diren estatu-hitzarmenen bidez soldataren %50eraino ere galtzen da”

ELAren eta LABen ustez salatu beharrekoa da CCOOek, UGTk eta patronalak hartu duten erabakia, Ostalaritza Sektorearen Esparru Akordioa inpugnatzekoa. Akordio hori ELAk eta LABek sinatu zuten Ostalaritzaren Federazioarekin eta Confedebarekin. CCOOek eta UGTk ez zuten akordioa sinatu, baina ELAk eta LABek oso ongi deritzogu akordio horri.

1.- AKORDIOAREN EDUKIAK

1. Lehenetsuna ematea euskal hitzarmenei, estatu-hitzarmenen aurretik, nabarmen hobeak baitira.
2. EAEko Kolektibitateetako langileei euskal hitzarmen probintzialak aplikatzea, eta ez Sukaldaritzaren Estatu Hitzarmena, soldatetan %50eko murrizketa ekarriko baitzien (urtean 8.200 euro gutxiago eta 50 lanordu gehiago). (Ikusi beheko taula).

2.- ZER EGIN DUTE MADRILEN CCOO-EK, UGT-K ETA PATRONALAK?

Euskal akordioa inpugnatu dute, gure hitzarmenak indargabetzeko asmoz.

Orain dela zenbait aste, eskari bat bidali zioten Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailari, akordioa aldizkari ofizialean ez argitaratzeko eskatuz. Estatuko Akordioaren Batzorde Parekidearen izenean egin zuten eskaria, euskal akordioa lege espainiarraren kontrakoa zela argudiatuz (Zapateroren erreforma). Euskal akordioa negoziatzen ari gina,

Ordezkaritza Ostalaritzan:

ELA: %47,64	Sinatzaileak: %77,48
LAB: %29,84	
CCOO: %14,22	Ez sinatzaileak: %22,52
UGT: %8,30	

Ordezkaritza Kolektibitateetan:

ELA: %42,57	Sinatzaileak: %83,13
LAB: %40,56	
CCOO: %10,84	Ez sinatzaileak: %16,86
UGT: %6,02	

CCOO-UGTk idazki bat bidali ziguten ELA-LABi —hizkera hertsagarrian— negoziazio hura bertan behera uzteko eskatuz.

KONPARAZIOZKO TAULA: ESTATU-HITZARMENA VERSUS PROBINTZIA-HITZARMENAK

Convenio Restauración Estatal

*5,97 euro/orduko
*10.747 euro gordin urtean
*1.800 ordu urtean

Arabako probintzia hitzarmena

*11,19 euro/orduko
*19.537 euro gordin urtean
*1.746 ordu urtean

Bizkaiko probintzia hitzarmena

*10,62 euro/orduko
*18.588 euro gordin urtean
*1.750 ordu urtean

Gipuzkoako probintzia hitzarmena

*10,11 euro/orduko
*17.427 euro gordin urtean
*1.723 ordu urtean

3.- HITZARMENEN ESTATALIZAZIOAREN BIDEZ ZER BILATZEN DUTE?

ELAn eta LABen uste dugu hiru helburu dituztela, funtsean:

1. Lehenengoa, Lan-baldintzak prekarizatzea; soldata eta gainerako lan-baldintzak Estatukoekin behetik bateratuz. Patronalik atzerakoenaren eta gobernuen helburua da, eta CCOO-UGTk laguntzen dute estatu-hitzarmenen bidez, bai sektore-mailan, bai enpresa-mailan..

2. Bigarrena, Sektore-negoiazioaren monopolioa izatea. Horrela, haiek estatu-hitzarmenetatik eragotzi ahal izango dute gainerakook hitzarmenik negoziatzea. Beti ere, bakoitzak duen ordezkaritza sindikala alde batera utzita. CCOO eta UGT bat datoz lege espainiarraren helburuarekin: “Noizbait sektore-hitzarmen bakar bat izatea estatu osorako”. Helburu horretarako, ezin hobeto dator beheragoko esparruko sektore-hitzarmenak debekatzea. Ikuspuntu politiko hori, gainera, oso koherentea da Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruaren ideien kontrako jarrerarekin.

3. Hirugarrena, Finantzaketa lortzea. Helburu hori bi bidetatik lortzekoa da::

■ Lehenengo bidetik, “kanon sindikala” ezarriz. CCOOek, UGTk eta patronalek ezarria zuten Ostala-

ritzaren Estatu Akordioan, langileek soldataren %0'10 fundazio bati ordaindu ziezaioten, haiek sorturiko fundazioari. “Kanon” hori ofizioz inpugnatu zuen Lan Agintaritzak, eta Auzitegi Gorenak legez kontrakoa deklaratu zuen, ez baitago horrelako kerketak nominatik egiterik.

■ Bigarren bidetik, “egitura parekideak” sortuz. Sindikatuek eta patronalak estatuko hitzarmenetan diru publikoz sortzen dituzte halako egiturak, langileen-ustezko lanbide-heziketaren beharrianak betetzeko. Horretarako, Rajoyren gobernuak zera proposatu du: UGTk, CCOOek eta patronalak horrelako prestakuntza-planak prestatzeagatik jasotzen duten finantzazioa handitzea, 2016an 1.425.000 euro izatetik 2017an 8.925.000 euro izatera. %526ko igoera. Finantzaketa publiko hori estatu-hitzarmenak sinatzearen bidez helduko zaie.

ELAk eta LABek pentsatzen dugu, CCOOen, UGTren eta patronalen finantzaketa-beharrianak kontuan izanik, estatuko sektore-negoiazioa eta prestakuntza-beharrianak lotzen uztea galbidetik joatea dela. Hori horrela, bi alderdi aterako dira galdutan: sinatzen diren hitzarmenetako lan-baldintzak, erlatibizatuko baitira; eta prestakuntza bera, prestakuntza hori taxutzen duten erakundeek diru-interesen menpean geratuko baitira.

ELA eta LABEN ONDORIOAK

1.- CCOOen, UGTren eta patronal espainiarraren asmoa da negoziazio kolektiboa estatu-esparruko sektore- eta enpresa-hitzarmenen bidez eramatea, negoziatzeko dugun eskubidea ezabatzearen.

2.- Gure iritziz urtarrilean EAEn sinatu zuten Lan-bide-arteko Akordioa itxurakeria bat izan zen, Madrildik euskal hitzarmenen aurka daramaten estrategia ezkutatzearren.

3.- Estrategia horrek langileria orokorrean pobretzen du, eta patronalaren eta gobernuen ikuspuntuak eusten die, soldata merkatzeari eta aurrekontuak murrizteari begira.

4.- Azpimarratu beharrekoa da Ostalaritzaren Sektore Akordioa suntsitu nahi duten patronalak CEOEko kide direla, Confebask bezala. ELAtik eta LABetik dei egiten diogu azken patronal horri, aipaturiko esparru-akordioa sinatu duenez, haren ikuspuntua argitu dezan. Izan ere, Confebaskek argitu beharko luke EAEko negoziazio-esparruen

alde dagoen, inpugnazioaren aurka eta Ostalaritza Sektorearen Esparru Akordioaren alde jarritz ala, aitzitik, bat egiten duen estatuko patronalekin, EAEko negoziazio-esparruak mugatu eta are debekatu ere nahi dituzten patronalekin.

5.- Horrelako jokabideak ikusita, Urkulluren gobernuak gaizki deituriko Gizarte Elkarrizketaren Mahaia desegin beharko luke. Hala da, ez dago autogobernuri negoziazio kolektiborik gabe; hortaz, ez da onargarria Madrildik euskal negoziazio kolektiboa oztopatzen duten berberak mahai horretako kide izatea.

6.- ELAk eta LABek berriro agertzen dugu gure engaiamendua Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruarekin, eta halaber eskatzen dugu demokraziaren joko-arauak errespetatzeko, eta beraz zer eta non negoziatzen dugun euskal esparrutik erabakitzeke.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB